

## "Badira, Bagara" dokumentala Donostian aurkeztu zen

2013/09/09

**Olatz Artolak** (Tolosa), **Itxaso Frauk** (Getxo) eta **Marta Prolek** (Eibar) Ikus-entzunezko komunikazioa ikasi dute Mondragon Unibertsitatean. Laugarren mailan zeudela, eta aukeratu behar zutenean Gradu Bukaerako Lana, erabaki zuten dokumental bat egitea Tuterako Argia ikastolaren problematikaz, aurtengo Nafarroa Oinez Tuteran egingo baita, urriaren 30ean, Argia ikastolaren alde.

Lanaren emaitza "**Badira, Bagara**" izan da, 30 minutuko dokumentala, hunkigarria eta ikusmin handia pizten ari dena bazterretan. Horregatik, irailaren 6an ere, jende asko bildu zen Basque Culinary Centerrera, dokumentalaren estreinaldira, tartean politikariak, euskalgintzako jendea, agintariak eta jende ezaguna. Bukaeran txalo zaparrada ikasleentzat, dokumentaleko protagonistentzat eta aretoan zeuden Argia ikastolako ordezkarietzat.

Lanak ez dira hor amaitu, ordea, ikasleek webgune bat prestatzeko asmoa dute-eta, dokumentala zabaltzeko eta bertan jasotzeko bideoan sartu ezin izan dituzten lekukotasunak.

### Oihartzuna prentsan

- Legearen mapak, euskararen aldapak
- Documental sobre el euskera en Tudela, como trabajo de fin de carrera



Badira Bagara trailerra from badirabagara on Vimeo.